



AZALPEN-GIDA, ERAKUSTEKO NOLA ERABILI EREDUAK, EPAIMAHAIKIDEAK IZENDATZEKO, HONAKO HAUETAN: DEIALDIA(K), LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO; HAIN ZUZEN ERE, BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO PROZESU BEREZIARI DAGOZKION LANPOSTU HUTSAK.

Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak gida labur hau egin du, toki-erakundeek tresna bat izan dezaten, lagungarri izan dakien ereduak erabiltzeko, **epaimahaikideak izendatzeko** honako hauetan: deialdiak, lanpostu hutsak betetzeko; hain zuzen ere, behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziari dagozkion lanpostu hutsak, jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 6.2 artikuluari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–).

1.- Epaimahaiko kideak izendatzea jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 6.2 artikuluari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

2021eko abenduaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, hizpide dituen enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak, eta hartan aurreikusten da egitea administrazio publikoetan behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bat. Lege horrek, hamargarren xedapen gehigarrian, xedatzen du hura Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dela jarraikiz Konstituzioaren 149.1.18 artikuluari eta lehenbiziko xedapen gehigarriari, eta abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoari (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa).

Gero, 19/2022 Foru Legea onetsi zen, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–. 19/2022 Foru Legearen 6.2 artikulua haxe dio:

“Egonkortze prozeduren epaimahai kalifikatzaileak deialdia onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko dira; epaimahaien kide-kopurua bakoitia izanen da, hiru gutxienez, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko da.

Epaimahaiak osatzerakoan, espezialitatearen printzipioa betetzen dela zainduko da, eta, horretarako, epaimahaikideen gehiengo osoak sartzeko eskatzen den jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, maila akademiko berekoa edo goragokoa, eta gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatua izateko joera izanen da.

Merezimendu-lehiaketa bidez deitutako hautapen prozeduretako epaimahaiak osatzean, ez da beharrezkoa izanen aurreko paragrafoan adierazitako titulazioa izatea.

Baldin eta kasu bakoitzean eskumena duen Langileria Batzordeak ez badu epaimahai bakoitzean dagokion kidea izendatzeko proposamenik egiten eskatzen zaionetik 15 egun naturaleko epean, deialdia egiten duen organoak izendatuko du kide hori hautatutako langileen ordezkarien artetik, dagokion eremuan”

2.- Azalpen praktikoa, erakusteko nola erabili epaimahaikideak izendatzeko ereduak.

Ereduak osoki erabiltzeko, funtsezkoa da ulertzea bete behar direla izendatu beharreko epaimahai adina l. eranskin.

Adibide praktikoa bat: demagun Euntzetxikiko Udalak bi deialdi egin behar dituela, lanpostu hutsak betetzeko; hain zuzen ere, behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziari dagozkion lanpostu hutsak, eta bestea arkitektoentzat, oposizio-lehiaketaren bidez.

Hala, honela jokatu beharko luke:

1. Euntzetxikiko Udalaren **alkateak ebazpen bakarra(*) eman beharko du**, zeinaren bidez izendatuko baitira epaimahaiko kideak, honako hauetan: deialdiak, lanpostu hutsak betetzeko; hain zuzen ere, behin-behineko enplegua egonkortzeko eta finkatzeko

prozesu bereziari dagozkion lanpostu hutsak, jarraikiz uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 6.2 artikuluari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz –lege horrek hizpide ditu enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak–).

() a dokumentua Argitaratuko da Euntzetxikiko Udalaren web-orrian..*

2. Euntzetxikiko Udalak bitan bete beharko du **I. ERANSKINA** (“Epaimahaien osaera zehazten duten taulak”). Behin, arkitektoentzako deialdiko epaimahaikideak izendatzeko, eta beste behin, administrariantzako deialdiko epaimahaikideak izendatzeko. Bi epaimahaiak batera eta aldi berean argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

() b dokumentua Argitaratuko da Euntzetxikiko Udalaren web-orrian.*

Eredu horiek ez dira nahitaez Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar, nahikoa da toki entitatearen web orrian argitaratzea.